



# Hizkuntza Politika berrirako urratsak Ipar Euskal Herrian



**Uzt. 15 2024**

**Kod. G12-24**

**Mod.:**

Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2024

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Uzt. 15 2024

**Kokalekua**

Cité des Arts. Baiona

**Hizkuntzak**

Euskara

**Balio akademikoa**

10 ordu

**Antolakuntza Batzordea**

Fundación  
BBVA



## **Azalpena**

Hizkuntza baten transmisioari, erabilerari eta jarrerari buruzko datuak ematen dituzten heinean, inkesta soziolinguistikoak ezinbesteko tresnak dira hizkuntza politiken eraginkortasuna neurtu ahal izateko. Hain zuzen, bi gai hauek dira egun osoan zehar mugaren bi aldeetako unibertsitateko irakasleek, soziologoek, formatzaileek eta euskalgintza sozialeko eragile desberdinek uztartuko dituztenak. Eta euskarari buruzko azken inkesta soziolinguistikoak datu gazi-gozaok utzi baditu ere, ikusiko dugu fatalitaterik ez dela eta hizkuntza politika egokiak garatuz gero euskararen biziberritze prozesuan urrats sendo berriak eman daitezkeela.

## **Helburuak**

Hizkuntza politikaren gaia jendarteratzea eta hizkuntza baten biziberritze prozesuan hizkuntza politikak duen garrantziaz ohartaraztea.

Ipar Euskal Herrian hizkuntza politika publikoa eramateko ardura duen Euskararen Erakunde Publikoa berritzen ari diren garai horietan, hobekuntzarako urratsak proposatzea eta ikastaroan izena emanen duten jendearekin kontrastatzea.

# Programa

**2024-07-15**

09:00 - 09:15 Erregistroa

---

09:15 - 09:25 Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena

**Hur Gorostiaga Barriola** | Seaska - Zuzendaria

**Zilia Heredia-Irigoyen** | Ipar Euskal Herriko Euskaltzaleen Topagunea - Koordinatzailea

---

09:30 - 10:30 “Hizkuntza Politika eraginkor baterako oinarriak”

**Idurre Eskisabel Larrañaga** | Euskaingintzaren Kontseilua - Idazkari nagusia

**Eguzki Urteaga** | EHUko irakaslea eta soziologo

---

10:30 - 11:00 Atsedena

---

11:00 - 12:30 “Euskararen egoera gaur: zer diote datuek?”

**Iñaki Iurrebaso Biteri** | UEMA - Ikerketa teknikaria

---

12:30 - 13:30 Bazkaltzeko atsedena

---

13:30 - 15:25 Mahai ingurua: “Hizkuntza politika Ipar Euskal Herrian: jauzi kualitatiborako urratsak”

**Hur Gorostiaga Barriola** | Seaska - Zuzendaria (Moderatzailea)

**Idurre Eskisabel Larrañaga** | Euskaingintzaren Kontseilua - Idazkari Nagusia

**Eguzki Urteaga** | EHUko irakaslea eta soziologoa

**Peio Jorajuria** | Seaska - Lehendakaria

**Maddi Bordagarai** | Uda Leku - Koordinatzailea

---

15:30 - 16:00 Sintesia

---

## Zuzendaritza



**Sébastien Castet**

Euskal Konfederazioa

---


## Irakasleak



### **Maddi Bordagarai**

---

Sozial animazioan diplomatua. Formatzaile. Aisialdi zentroko zuzendari izana. 2011etik Uda Leku elkarteko koordinatzaile.



### **Idurre Eskisabel Larrañaga**

UPV/EHU, Irakaslea

---

Kazetaritzan eta Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziaduna. 'Euskaldunon Egunkaria'-n eta 'Berria'-n urte luzez aritua, egun irakasle EHUko Kazetaritza II Sailean. Medioek nazioekin eta sexu-genero sistemarekin duten uztardura eta soziolinguistika ditu ikergai. Hainbat mediotan kolaboratu du; egun, Euskadi Irratian eta Radio Euskadin aritzen da. 2019an 'Trikuia esnatu da' saiakera liburua argitaratu zuen Lorea Agirre Dorronsorekin batera. Literatur arloan 'Goseak janak' poemategia argitaratu zuen 2018an.



### **Hur Gorostiaga Barriola**

---

Lapurtarra. Kazetaritza (Leioan) eta zuzendibide europear (Lille-Frantzia) ikasketak egin ondoren Euskaldunon Egunkariako Iparraldeko ordezkari burua izana (1994-2001). Le Journal du Pays Basque egunkariaren sortzaile eta zuzendari izana (2001-2008). Gaur egun Seaskako zuzendaria da eta Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko zuzendaritza kidea. Euskal Konfederazioko zuzendaritza kidea. Eskolim Frantziar Estatuko murgiltze irakaskuntza ereduko 6 sareen federazioko zuzendaritza kidea, ISLRF (Institut Supérieur des Langues de la République Française) formakuntza zentroko zuzendaritza kidea, Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluko zuzendaritza kidea.



## **Zilia Heredia-Irigoyen**

---

Euskal Ikasketetako Ikerketa Masterra. Ipar Euskal Herrian Bai Euskarari elkartean euskara teknikari egona. 2022tik Ipar Euskal Herriko Euskaltzaleen Topagunea elkarteko koordinatzaile.



## **Iñaki Iurrebaso Biteri**

EHU

---


Soziologian doktorea. Donostiako Udalean soziologo lanetan aritua. Aztiker Ikergunearen sortzaile taldeko kide eta bertako zuzendari tekniko. Soziolinguistika gaietan aritua hainbat bezerorentzat lanean (Eusko Jaurlaritza, Soziolinguistika Klusterra...). EHUko Hezkuntza Zientziak saileko irakasle eta ikerlari izana. 2023tik ikerketa teknikari UEMAn.



## **Peio Jorajuria**

---

Agroelikaduran lizentziatua. Euskaingintzan eta elkarte desberdinetan aritua (besteak beste Ikas euskal pedagogioa zerbituko zuzendariorde egona). Gaur egun Bilketa euskal funtsen atariko teknikari. Seaska ikastolen federazioko lehendakari 2019tik.



Eguzki Urteaga Soziologiako Irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV-EHU) eta Ikerlari atxikia Rovira i Virgili Unibertsitateko Social and Business Research Laboratory-n (SBRlab). Soziologian Doktorea eta Lizentziaduna da Victor Segalen Bordeaux 2 Unibertsitatean eta Historian Lizentziaduna Pau et les Pays de l'Adour Unibertsitatean. Dagoeneko 34 liburu argitaratu ditu, hala nola, La Communauté Pays Basque: l'institutionnalisation du territoire (2017), La nouvelle politique linguistique au Pays Basque (2019) ala La politique culturelle au Pays Basque (2021) baita ere artikulu zientifiko ugari Europan zein Hego Ameriketan. Irakasle gonbidatua izan da Europako hainbat Unibertsitateetan, besteak beste, Bordele, Lobaina, Koimbra, Paris ala Rennes-en. Halaber, Euskal Telebista, Berria, Deia eta Gara bezalako komunikabideen kolaboratzailea da.

# Matrikula prezioak

AURREZ AURRE

2024-07-15 ARTE

[Mugaz Gaindiko Uda Ikastaroak](#)

0 EUR



# **Kokalekua**

## **Cité des Arts. Baiona**

3 Av. Jean Darrigrand, 64100 Bayonne, Francia.

Akitania